# GORABIDE

Nº 255 Zk.
DICIEMBRE DE 2016
2016KO ABENDUA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA



**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Normativa sobre dependencia**
**Mendekotasunari buruzko araudia**
pg. 4 or.



**Premio Barakaldo Solidario 2016**
**2016ko Barakaldo Solidarioa Saria**
pg. 6 or.



**Estancias en semana santa**
**Aste santuko egonaldiak**
pg. 7 or.





*Maureen Piggot, presidenta de inclusion Europe*

# *"Las asociaciones continúan logrando que las cosas pasen"*

*Maureen Piggot, Inclusion Europeko presidentea*

# *"Elkarteek jarraitzen dute lortzen gauzek aurrera egitea"*



## Seminario con periodistas sobre el tratamiento de las personas con discapacidad intelectual en los medios de comunicación

## Hedabideetan adimen desgaitasuna duten pertsonei trataerari buruzko mintegia kazetariekin

(pg.5 or.)


GORABIDE

**ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL**
c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
www.gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide



Colabora
Laguntzen du
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

## Maureen Piggot, Inclusion Europeko presidentea

# *“Elkarteek jarraitzen dute lortzen gauzek aurrera egitea”*




**Maureen Piggot, adimen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien Europako elkarteko presidentea, Desgaitasunari eta Mendekotasunari buruzko bigarren BBK Jardunaldian egon zen. Ekitaldiaren antolaketan Gorabide, Lantegi Batuak eta Deustuko Unibertsitatea lankidetzan aritu ziren. Gainera, gure egoitza bisitatu zuen Europan adimen desgaitasuna duen errealitateari buruzko iritziak partekatzeko.**

Inclusion Europeko ordezkariaren iritziz *”elkarteek jarraitzen dute lortzen gauzek aurrera egitea, baina ez da gauza bera irtenbideak planteatzea edo aurreikustea”*. Horregatik, adierazi zuen *“laguntzak zehaztuko dituzten legeak behar dira, laguntza horiek aurrera egingo badute”*, izan ere haren ustez *“erantzukizunak banatuta daude Hezkuntzan, Osasun arloan etab. Partekatu egin behar dira behar guztien bitartez definitzen diren politikekin"*.

**Laguntzak *“jende nagusiarentzat”***

Hitz egin zuen ere *"arazo komun”* batez, eskubideak bermatzeko gizarte politiken eta mendekotasun kontzeptuarekin lotutakoen arteko dikotomiaz. Haren iritziz *“laguntzak jende nagusiarentzat diseinatzen dira eta, horregatik, baliabide gutxi daude adimen desgaitasuna duten umeentzat, baina gazteentzat bat ere ez”*. Umeen kasuan, haren ustez, *“adimen desgaitasuna duten umeen hezkuntza eskubideen”* alde egin behar da eta *“arreta berezia jarri behar zaio hezkuntza uzteko uneari, kritikoa baita”*.

Enplegu tasei dagokienez, Bizkaian ez bezala *“itzelak baitira"*, Europan *“txikiak dira eta kualifikazio gutxikoak”* amaitu zuen Inclusion Europeko presidenteak.

IRAKURKETA ERRAZA

Europako elkarteko presidenteak bisitatu gaitu. Kontatu digu zer gertatzen den Europan. Dioenez, elkarteak garrantzitsuak dira eta behar guztiei irtenbidea ematen dieten legeak behar dituzte. Eta uste du gazteentzako gauza gutxi daudela.

## Begoña Martín eta Federico Gil protagonista izan ziren Desgaitasunari eta Mendekotasunari buruzko Bigarren BBK Jardunaldian

**Maureen Piggot, Sergio Murillo (Bizkaiko Foru Aldundia), Leire Aragón (BBK) eta Yolanda Fillat (aholkulari soziala) txostengileez gain, Gorabide, Lantegi Batuak eta Argia Fundazioko ordezkariek ere parte hartu zuten ekitaldian. Gure kasuan, Begoña Martínek komunikazio eragingarrari buruz dugun proiektuari buruzko hitzaldi batean hartu zuen parte, erakusteko eskubide horrekin beste eskubideak gauzatzen direla. Federico Gilek parte hartu zuen lorpen eta desioei buruzko mahai-inguru batean, Natxo Martínezek dinamizatuta (Deustuko Unibertsitatea).**



## Maureen Piggot, presidenta de Inclusion Europe

# *"Las asociaciones continúan logrando que las cosas pasen"*

**Maureen Piggot, presidenta de la asociación europea de personas con discapacidad intelectual y sus familias Inclusion Europe, participó en la Segunda Jornada BBK sobre Discapacidad y Dependencia, en cuya organización colaboramos Gorabide, Lantegi Batuak y la Universidad de Deusto. Además, visitó nuestra sede para compartir impresiones sobre la realidad de la discapacidad intelectual en Europa.**




En opinión de la máxima representante de Inclusion Europe, *"las asociaciones continúan logrando que las cosas pasen, pero no es lo mismo plantear soluciones que proveerlas"*. Por eso, se refirió a la necesidad de que existan *"leyes que definan los apoyos para que éstos evolucionen"*, porque considera que *"las responsabilidades están repartidas entre Educación, Sanidad, etc. y hay que ponerlas en común con políticas que se definan a través de todas las necesidades"*.

**Apoyos *"para gente mayor"***

También se refirió como *"un problema común"* a la dicotomía entre políticas sociales garantistas de derechos y aquellas vinculadas al concepto de dependencia. A su entender, *"los apoyos se diseñan para gente mayor y, por eso, hay pocos recursos para niños y niñas con discapacidad intelectual, pero nada para jóvenes"*. En el caso de la infancia, abogó por *"luchar por los derechos educativos de los niños y las niñas con discapacidad intelectual" y por prestar "especial atención al momento de dejar la educación, que es crítico"*.

Sobre las tasas de empleo, a diferencia de las que hay en Bizkaia *"que son impresionantes"*, en Europa *"son bajas y poco cualificadas"*, concluyó.

## Begoña Martín y Federico Gil fueron protagonistas en la Segunda Jornada BBK sobre Discapacidad y Dependencia



**Además de Maureen Piggot, Sergio Murillo (Diputación Foral de Bizkaia), Leire Aragón (BBK) y Yolanda Fillat (consultora social), participaron en la jornada representantes de Gorabide, Lantegi Batuak y Fundación Argia. En nuestro caso, Begoña Martín intervino en una ponencia sobre nuestro proyecto de comunicación eficaz, mostrando cómo a través de ese derecho se materializan los demás derechos. Y Federico Gil participó en una mesa redonda sobre logros y deseos dinamizada por Natxo Martínez (Universidad de Deusto).**

IRAKURKETA ERRAZA

Nos ha visitado la presidenta de la asociación europea. Nos ha contado qué pasa en Europa. Dice que las asociaciones son importantes y que necesitan leyes que den soluciones a todas las necesidades. Y cree que hay pocas cosas para jóvenes.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Se modifica la normativa foral de dependencia

La Diputación Foral de Bizkaia ha aprobado algunas modificaciones respecto al procedimiento de valoración a la dependencia y la prestación económica por cuidado en el entorno familiar. En lo que respecta a la **valoración y orientación por dependencia**:

1 La solicitud de valoración se entrega en el Ayuntamiento y éste la envía a la Diputación.
2 Se realiza visita domiciliaria de médico y trabajador/a social. Es el momento en el que se realiza la valoración y orientación al servicio, recurso o prestación oportuna, previo consenso con la persona dependiente y su familia.
3 Una vez realizada esta valoración, la familia recibirá dos notificaciones (Orden Foral), donde aparecerá señalado el grado de dependencia y PIA, así como el reconocimiento de persona beneficiaria del servicio o prestación económica.
   - En el caso de servicios residenciales o de centro de día para personas con discapacidad, se explicitará que se encuentra en lista de espera y se le comunicará la puntuación que se le asigna en el ISNA (indicador de necesidad social que se utiliza para el orden en la lista de espera).
   - En el caso de prestación económica, se le informará de que tiene derecho a dicha prestación y empezará a cobrarla en un plazo de 6 meses como máximo a contar desde la fecha en que entró el expediente en la Diputación.

Por su parte, la **prestación económica para cuidado en el entorno familiar** es incompatible con las estancias temporales en residencia y centro de día. Cuando una persona acceda a servicios de ese tipo, sólo se suspenderá la prestación durante los días efectivos que haya utilizado la estancia temporal. Es obligación de la familia comunicar la estancia temporal a la Diputación.

# Mendekotasunari buruzko foru araudia aldatu egin da

Bizkaiko Foru Aldundiak aldaketak egin ditu mendekotasunaren ebaluaziorako prozeduraren araudian eta familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoan. **Mendekotasunaren ebaluazioari eta orientazioari dagokionez**:

1 Ebaluazio eskaera Udaletxera eraman behar da eta handik Diputaziora bidaliko dute.
2 Medikua eta gizarte langilea etxera joango dira bisita egitera. Une horretan egiten da ebaluazioa eta behar den zerbitzu, baliabide edo prestaziorako orientazioa, mendekotasuna duen pertsonarekin eta haren familiarekin adostuta.
3 Ebaluazioa egin ondoren, familiak bi jakinarazpen jasoko ditu (Foru Agindua), bertan egongo da adierazita zein mendetasun maila duen eta ABP, eta zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren onuraduna izatearen onarpena.
   - Desgaitasuna dutenentzako egoitza zerbitzu edo eguneko zentroei dagokienez, adieraziko da itxaron zerrendan dagoela eta zein puntuazio dagokion desgaitasunen bat duten pertsonek zentroetan arreta jasotzeko duten beharra neurtzeko adierazkarian (ISNA).
   - Prestazio ekonomikoari dagokionez, jakinaraziko zaio eskubidea duela prestaziorako eta 6 hilabeteko epearen barruan hasiko da jasotzen, espedientea Aldundian sartu den egunetik kontatzen hasita

Bestalde, **familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa** ez da bateragarria egoitzetako aldi baterako egonaldiekin eta eguneko zentroekin. Horrelako zerbitzuak jasotzen dituena prestazio gabe geratuko da soilik aldi baterako egonaldia erabili duen egunetan. Familiak jakinarazi beharko dio Aldundiari aldi baterako egonaldia erabili dutela.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Seminario con periodistas

***Abordamos el tratamiento de las personas con discapacidad intelectual en los medios, en un encuentro con la Asociación y el Colegio Vasco de Periodistas***

**Coincidiendo con la semana del Día Internacional de las Personas con Discapacidad, organizamos con la Asociación Vasca de Periodistas y el Colegio Vasco de Periodistas un seminario-debate sobre el tratamiento de las personas con discapacidad intelectual en los medios de comunicación. Participaron representantes de la Agencia Efe, Berria, Deia, EiTB, El Correo, Onda Vasca, Radio Bilbao y Radio Popular.**

El encuentro, que contó con portavoces de las personas con discapacidad intelectual del Programa Goratu y nuestros grupos de autogestores, intentó tender puentes entre nuestra asociación y el colectivo de periodistas, para tratar de seguir avanzando en la difusión de una imagen de las personas con discapacidad intelectual que sensibilice a la sociedad sobre las capacidades y aportaciones de este colectivo, y fomente el respeto de sus derechos y su dignidad.

***"Ponerse en la piel del otro"***

Las diferentes intervenciones centradas en el debate coincidieron en que se ha pasado *"la frontera de la visibilización, pero queda cambiar el enfoque y el lenguaje"*. Para ello, se abogó por *"ponerse en la piel del otro"*, *"reajustar algunas cosas, incluso la buena intención"* e *"intentar que la protagonista no sea la discapacidad, sino la persona"*. En ese sentido, propusimos continuar trabajando conjuntamente para mejorar esos aspectos.



# Mintegia kazetariekin

***Adimen desgaitasuna duten pertsonek hedabideetan trataerari buruz hitz egin genuen, Euskal Kazetarien Elkartearekin eta Elkargoarekin topaketa batean***

**Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren astea zela eta, mintegia antolatu genuen Euskal Kazetarien Elkartearekin eta Euskal Kazetarien Elkargoarekin, adimen desgaitasuna duten pertsonei hedabideetan trataerari buruz mintzatzeko. Agencia Efe, Berria, Berria, Deia, EiTB, El Correo, Onda Vasca, Radio Bilbao eta Herri Irratiko ordezkariek hartu zuten parte.**

Topaketak Goratu Programako adimen desgaitasuna dutenen ordezkariak elkartu zituen eta zubia egin nahi izan zuen gure elkartearen eta kazetarien kolektiboaren artean, aurrera egiten ahalegintzeko adimen desgaitasuna duen pertsonaren irudia hedatzerakoan, kolektibo horren gaitasun eta ekarpenekin gizartea sentsibilizatu dezan, eta haien eskubideak eta duintasuna errespetatzea sustatu dezan.

***"Bestearen lekuan jartzea"***

Debateko ardatz izan ziren parte hartzaile guztiak bat etorri ziren eta adierazi zuten *"ikusgarritasunaren muga pasatu dugu, baina ikuspegia eta hizkuntza aldatu behar ditugu"*. Horregatik, beharrezkoa da *"bestearen lekuan jartzea"*, *"gauza batzuk birdoitzea, eta asmo ona ere bai"* eta *"ahalegina egin protagonista pertsona izan dadin, ez desgaitasuna"*. Horregatik, lan egiten jarraitzea proposatu genuen, arlo horiek hobetzeko.

# Recibimos el Premio Barakaldo Solidario de la Fundación Miranda

**La Fundación Miranda nos ha concedido el Premio Barakaldo Solidario 2016, en reconocimiento a nuestra presencia y actividad en ese municipio, a través de los centros que gestionamos y de nuestro voluntariado. Recogieron el galardón Santiago Carrascosa, usuario de nuestra Residencia Ibarreta-Zuloko, y Pablo González, gerente de la asociación.**

*"Este premio es un paso más en nuestra lucha diaria"*, agradeció Santiago Carrascosa al recibir el premio de manos del presidente de la Fundación Miranda, Jokin Perea, que destacó *"dos características fundamentales de Gorabide: su preocupación por los humanamente más debiles y el trabajo de su voluntariado"*. Por su parte, Pablo González expresó que el premio *"lo recibimos con alegría, y lo interpretamos como un reconocimiento al trabajo de mucha gente durante mucho tiempo, y como un estímulo para seguir avanzando"*.



# Miranda Fundazioko Barakaldo Solidarioa Saria jaso dugu

**Miranda Fundazioak Barakaldo Solidarioa 2016 saria eman digu, aintzat hartu dute herri horretan dugun presentzia eta jarduera, guk kudeatzen dugun zentroaren eta gure boluntarioen bidez. Saria jasotzera joan ziren Santiago Carrascosa, Ibarreta-Zuloko Egoitzako erabiltzailea eta Pablo González, elkarteko kudeatzailea.**

*"Saria beste urrats bat da gure eguneroko ahaleginean"*, eskertu zuen Santiago Carrascosak saria jasotzean Miranda Fundazioko presidente Jokin Perearen eskutik, eta hark azpimarratu zuen *"Gorabidek bi ezaugarri nagusi ditu: gizalegez ahulagoak direnengatiko kezka eta boluntariotzako lana"*. Bestalde, Pablo Gonzálezek adierazi zuen saria *"pozik hartu dugu, eta uste dugu aintzat hartu dutela jende askok denbora askoan egindako lana, eta guretzat aurrera jarraitzeko estimulua da"*.

## Donativo de Stock Euskadi

La Feria del Stock de Euskadi donó 3.000 euros de su recaudación a nuestros fines. Recogió el donativo un grupo de personas usuarias de nuestra Residencia Ibarreta-Zuloko de Barakaldo, de manos del director de Stock Euskadi. Además, dispusimos de una mesa en la feria para informar sobre voluntariado.




## Stock Euskadiko dohaintza

Stock Euskadiko Azokak bilketaren 3000 euroko dohaintza egin zuen gure helburuetarako. Barakaldoko Ibarreta-Zuloko Egoitzako erabiltzaile talde batek jaso zuen dohaintza, Stock Euskadiko zuzendariaren eskutik. Gainera, mahai bat izan genuen azokan boluntariotzari buruzko informazioa emateko.



# Estancias temporales en semana santa

Las solicitudes para acceder a una estancia temporal en la Residencia Ola durante la próxima semana santa deben realizarse antes de que queden dos meses para la fecha de inicio de la estancia, según establece el decreto foral que regula la tramitación y la adjudicación de plazas. El servicio BBK SAIOA GORABIDE advierte de que *"realizar la solicitud antes de esos dos meses, aunque no asegura contar con una plaza, evita quedar fuera de plazo y no tener opción en la adjudicación que realiza la Diputación Foral de Bizkaia"*. Algo que ocurre en períodos como semana sante, en los que puede haber más solicitudes que plazas.

**BBK SAIOA GORABIDE**
Tel. 94 453 90 86

# Aste Santuan aldi baterako egonaldiak

Datorren urteko aste santuan Ola Egoitzan aldi baterako egonaldia egiteko eskabideak egonaldia hasi baino bi hilabete lehenago aurkeztu behar dira, plazen izapide eta esleipena arautzen duen foru dekretuak ezartzen duenaren arabera. BBK SAIOA GORABIDE zerbitzutik hauxe jakinarazi dute: *"Bi hilabete horiek baino lehenago eskaera eginez gero, plaza ez da ziurtatzen, baina epez kanpo geratu eta, Bizkaiko Foru Aldundiko esleipenetan aukerarik ez izatea ekiditen da"*. Horrelakoak udan eta gertatzen dira, plaza izateko eskaera gehien egoten den sasoietan.

**BBK SAIOA GORABIDE**
Tel. 94 453 90 86

## LABURRAK BREVES

### Manifiesto por el 13 de diciembre

El 13 de diciembre, día en el que se celebra el décimo aniversario de la Convención de la ONU sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad, la Diputación Foral de Bizkaia y BBK lanzarán el manifiesto 'Bizkaia: Territorio comprometido con las personas con discapacidad', para abogar por su total aplicación.

### Abenduaren 13aren aldeko adierazpena

Abenduaren 13an, Desgaitasuna duten pertsonen Eskubideei buruzko NBEko Konbentzioaren hamargarren urteurrena ospatzen den egunean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k 'Bizkaia: Desgaitasuna duten pertsonekin konprometitutako lurraldea' adierazpena emango dute ezagutzera, osorik aplika dadin.

### Solicitudes para verano de 2017

En enero, se abre el plazo de solicitud de los Programas de Vacaciones del Servicio de Tiempo Libre y de los Programas de Inclusión de la Diputación y del Gobierno Vasco, que tendrán lugar en verano. La próxima revista incluirá el impreso de solicitud y las instrucciones para cumplimentarlo.

### 2017ko oporretarako eskaerak

Urtarrilean, zabalduko da epea udarako eskaera egiteko, Astialdiko Zerbitzuaren Oporren Programetarako eta Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Inklusio Programetarako. Hurrengo aldizkarian eskabidea egiteko inprimakia eta hura betetzeko argibideak jarriko ditugu.

GORABIDE

DICIEMBRE DE 2016 | Nº 255 Zk | 2016KO ABENDUA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA



**Nuestra Residencia Plazakola organizó una jornada de puertas abiertas con numerosas actividades: photocall, proyecciones, exposiciones, lunch, baile, chocolatada... ¡e incluso boccia!**

**Plazakola Egoitzak ateak zabaltzeko jardunaldia antolatu zuen eta hainbat jarduera egon ziren: photocalla, proiekzioak, erakusketak, luntxa, dantzaldia, txokolatea... eta boccia ere bai!**



# agenda diciembre abendua

## AUTOGESTORES AUTOGESTOREAK

### JÓVENES
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día Eguna** 20 martes asteartea | **Hora Ordua** 18:00

### LOS NUEVOS
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día Eguna** 12 lunes astelehena | **Hora Ordua** 18:00

### LOS VETERANOS
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día Eguna** 21 miércoles asteazkena | **Hora Ordua** 18:00

### GURE AHOTSA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día Eguna** 20 martes asteartea | **Hora Ordua** 18:00

### LOS ELEGANTES
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día Eguna** 21 miércoles asteazkena | **Hora Ordua** 18:00

### COMISIÓN REDACTORA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día Eguna** 22 jueves osteguna | **Hora Ordua** 18:00

## FORMACIÓN FAMILIAR FAMILIEN PRESTAKUNTZA

### HERMANOS/AS Y CUÑADOS/AS ANAI-ARREBAK ETA KOINATAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día Eguna** 13 martes asteartea | **Hora Ordua** 18:00

### TALLER DE ABUELOS/AS AITITE-AMAMEN TAILERRA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día Eguna** 19 lunes astelehena | **Hora Ordua** 18:00

### FAMILIAS DE CHICAS CON S. RETT RETT DUTEN NESKETAKO FAMILIAK
*Residencia Ola | Ola Egoitza Goietxa bidea, 18 - Sondika*
**Día Eguna** 17 sábado larunbata | **Hora Ordua** 11:00

### TALLER NAVIDEÑO PARA HERMANOS Y HERMANAS MENORES | NEBA-ARREBA TXIKIENTZAKO GABONETAKO TAILERRA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día Eguna** 16 viernes ostirala | **Hora Ordua** 18:00

## AGRUPACIONES ELKARTEAK

### BUSTURIALDEA — Encuentro Topaketa
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día Eguna** 14 miércoles asteazkena | **Hora Ordua** 18:30

### DEUSTO-SAN IGNACIO — Junta Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día Eguna** 6 martes asteartea | **Hora Ordua** 19:30

### ERMUA — Junta Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua*
**Día Eguna** 5 lunes astelehena | **Hora Ordua** 19:30

### MUNGIALDEA — Comisión Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Día Eguna** 6 martes asteartea | **Hora Ordua** 20:00

### SANTURTZI — Comisión Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día Eguna** 28 miércoles asteazkena | **Hora Ordua** 19:00

### DURANGALDEA — Encuentro Topaketa
*Pinondo Etxea. Pza. Pinondo - Durango*
**Día Eguna** 15 jueves osteguna | **Hora Ordua** 18:00

Charla sobre ética en el cuidado
Ardurako etikari buruzko hitzaldia
**Día Eguna** 1 jueves osteguna | **Hora Ordua** 18:00

D.L./L.G. BI-394-2014